



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**ERABAKIA, 2011ko ABENDUAREN
22koa, UPV/EHUko GOBERNU
KONTSEILUARENA, 2012-2015
ALDIRAKO UPV/EHUko
KOMUNIKAZIO PLANA
ONARTZEKO DENA**

**ACUERDO DEL CONSEJO DE
GOBIERNO DE LA UPV/EHU, EN SU
SESIÓN DE 22 DE DICIEMBRE DE
2011, PPOR EL QUE SE PROCEDE A
LA APROBACIÓN DEL PLAN DE
COMUNICACIÓN 2012-2015 DE LA
UPV/EHU.**

Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako errektoreordeak hala proposatuta, Gobernu Kontseiluak honakoa

A propuesta de la Vicerrectora de Responsabilidad Social y Proyección Universitaria, el Consejo de Gobierno

ERABAKI DU:

ACUERDA

Bakarra.- Onartzea 2012-2015 aldirako UPV/EHUko Komunikazio Plana.

Único.- Aprobar el Plan de Comunicación 2012-2015 de la UPV/EHU.

Leioa, 2011ko abenduaren 22a

Leioa, 22 de diciembre de 2011

ERREKTORREA/EL RECTOR

Iñaki Goirizelaia Ordorika



LEKUTUARI NAGUSIA/LA SECRETARIA GENERAL

Eva Goñizola García

KOMUNIKAZIO PLANA
2012-2015
UPV/EHU

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AURKIBIDEA

Aurkezpena/Atarikoa	5
1. Planaren filosofia	7
2. Estrategia, estiloa eta mezuak	10
3. Planaren metodologia	18
4. Ekintza proposamenak	19
5. Proposamenen deskribapena	24

AURKEZPENA/ATARIKOA

Azken hamarkadetan gure gizartean nagusitzen ari den jarduera adarretako bat da komunikazioa. Gaur egun, komunikazioarekin lotutako gai guztiek garrantzi berezia dute, bai barne komunikazioarekin lotutakoek, bai gizarte hedadura lortzeko asmoz kanpo komunikazioarekin lotutakoek.

Euskal Herriko goi hezkuntzako erakunde nagusia da UPV/EHU unibertsitate publikoa, eta, alde horretatik, komunikazioa behar bat izatetik betebehar bat izatera igaro da. Batetik, unibertsitatearentzat berarentzat garrantzitsua da lorpen, aurrerapen eta aurkikuntzen berri ematea bai gizarteari oro har bai helburu ditugun beste hartzaille batzuei. Baina, bestetik, gure jardueren berri emateko betebeharra dugu: zer egiten dugun, nola egiten dugun eta gizarteak ematen diguna zertan inbertitzen dugun azaldu beharra daukagu, eta azaltzen dugu, izan ere.

Gardentasunaren eta lankidetzaren aroan gaude, eta, testuinguru horretan, funtsezkoa da barne komunikaziorako mekanismo batzuk ezartzea informazio fluxu egonkor eta trabarik gabeak lortzeko; alegia, beheranzko informazioa lortzeko bidez gain, goranzko informazioa eta informazio horizontala lortzeko bideak ere behar ditugu. Helburu ditugun hartzailleekin etengabeko dialogoa eta kanpo komunikazioa finkatzeko aroan gaude, eta, dialogo horretan, unibertsitateko kide guztiek parte hartu behar dute, gizartearekin partekatu behar baitute unibertsitatean mamitutako ezagutza guztia.

Egia esan, UPV/EHUko eta UPV/EHUko ikastegietako zuzendaritza taldeek urte asko daramatzate gai horren inguruan lanean (ekimen ugari garatzen dituzte), jakitun baitira komunikazioarekin lotutako gai guztiek garrantzi handia dutela. Nolanahi ere, ekimen horiek guztiek sistematikotasun eta harmonikotasun falta nabaria dute.

Ahaleginak batzeko, sinergiak baliatzeko, ekimenak barreiatzeko, eta aurkikuntzak eta erroreak gizarteratzeko garaian gaude. Komunikazioarekin lotutako jardueri bultzada sendo bat emateko garaian gaude.

Horregatik da interesgarria, hain zuzen, errektoretza taldeak UPV/EHUn Komunikazio Plan bat landu nahi izatea erakundearen gauzatzen diren barne eta kanpo komunikazio jarduerak biltzeko, sistematizatzeke, ordenatzeko, koordinatzeko, sustatzeko eta sendotzeko.

Izan ere, funtsezko tresna bat da UPV/EHUko barne komunikazioa kudeatzeko (mezuak) eta erakundearen helburu diren hartzaileren aurrean ematen duen irudian eragina izateko. Komunikazio Plan bat izatea eta behar bezala garatzea lehiakortasunezko abantaila bat izan daiteke beste unibertsitate batzuekiko; horrez gain, unibertsitateko arduradunen lagungarri izan daiteke UPV/EHUn irudiarekin eta posizionamenduarekin lotutako erabakiak hartzeko orduan, eta unibertsitateak unibertsitateko kideekin dituen harremanak hobetzen lagun dezake. Halaber, beste kolektibo batzuekiko harremanak hobetzen ere lagunduko digu, hala nola etorkizunean gure ikasle izango direnak, ikastetxeetako orien-

tatzaileak, unibertsitateko ikasle ohiak, seme-alabaren bat unibertsitatean sartzeko adinean duten gurasoak, enpresak, gizarte liderrak, hedabideak eta, oro har, gizartea. Areago, Planari esker, kolektibo horiek erakundearekiko duten motibazioa, lotura eta konpromisoa indartuko dira.

Komunikazioak UPV/EHU n hartu duen garrantziaren erakusgarri da berriki sortu dugun Komunikazio Bulegoa, UPV/EHUko barne eta kanpo komunikazioaren estrategiekin lotutako arlo guztiak sustatzeko asmoz.

Komunikazio Bulegoak UPV/EHUko komunikazio instituzionala koordinatzen eta gauzatzen du, unibertsitateko kideei eurei berez dagokien ardura ?barne eta kanpo komunikazioa ahalik eta modu ego-kienean gauzatzea, alegia? gorabehera.

Bestalde, unibertsitateko agintariak beharrezkotzat jotzen dituzten komunikazio gaiei buruzko aholku-larritza ere ematen du Komunikazio Bulegoak. Halaber, unibertsitateko kideei laguntza ematen die publizitate gaietan, haiek hala eskatuz gero.

Hain zuzen, Bulegoaren arduretako bat UPV/EHUko Komunikazio Plana garatzea da (hain zuzen, eskuartean duzu Planaren zirriborroa).

UPV/EHUK 2011-2014 epealdian gauzatuko dituen komunikazio ekintza guztiak biltzen ditu Komunikazio Plan honek, barne zein kanpo hartzaileei zuzendurik, etorkizunari begira komunikazioaren arloan egin beharreko ekintzen gida bat eratzeko asmoz.

1. PLANAREN FILOSOFIA

UPV/EHUREN 2012-2015 ALDIRAKO KOMUNIKAZIO PLAN HONEK 2012-2017 ALDIRAKO UPV/EHUREN PLAN ESTRATEGIKORAKO OINARRIAK DITU ABIAPUNTU. OINARRI HAUETAN ZEHAZTEN DENEZ, UPV/EHU UNIBERTSITATE PUBLIKOA DA, IKERKETAN DIHARDUENA, EUSKAL GIZARTEAN ERROTUA, MUNDUARI IREKIA, AITZINDARI INTELEKTUALA ETA KONPROMISO ETIKO ETA SOZIALA DAUKANA.

Oinarri horietan, UPV/EHUREN MISIOA ETA IKUSPEGIA ERE JASOTZEN DIRA.

1.1. Misioa

- Lankidetzan oinarritutako eredu eleanitz eta inklusibo propioaren bidez prestakuntza osoa eskaintzea, malgua eta gizartearen premietara egokitua, eta pertsona irizpidedunak, sortzaileak, ekileak eta gizartearekin konprometituak bultzatuko dituena.
- Lankidetzan egindako bikaintasunezko ikerketa garatzea eta sendotzea, UPV/EHU Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren ardatz nagusi bihurtuta.
- Atlantikoko Arkuko Europar Eskualdean lankidetzan oinarritutako prestakuntza eskaintzea eta ikerketa oinarritzko elementu bihurtzea unibertsitateko jarduera osoan nazioarteko ikuspegia ezarrita.
- Antolaketa egituraren oinarri izatea elkartze estrategiko modernoak, lurraldean eta inguruko kulturaren errota eta munduari irekita egonik mailarik goreneko prestakuntza eskaintzen duen eta ikerketan diharduen unibertsitateari egokitua, eta bat datorrena campus anitzeko egiturako antolaketarekin.
- Gizartearekin konprometitutako erakunde legez daukan erantzukizuna onartzea, laguntza emanda inguruko gizartearen bizi baldintza hobek eta inklusio maila eta kohesio maila hobek lortzeko zereginen, bere eraginpeko gizartearen garapen ekonomiko jasangarrirako laguntza emanda, partaide aktiboa izanda Euskal Herriko gizarteak, kulturak eta ingurugiroak dituen erronkei irtenbideak bilatzeko zereginen.

1.2. Ikuspegia

ESTATUTU BERRIETAN ZEHAZTUTAKO HELBURU ETA BALIOEKIN BAT ETORRITA, ETA KONTUTAN HARTUTA DIAGNOSTIKO ESTRATEGIAKOA ETA MISIOA, UPV/EHU 2017AN:

- Ikerketan diharduen unibertsitate sendoa izango da nazioartean, talentuak hartzeko eta bere baliorik baliosuenak mundu zabalera bidaltzeko gai izango dena.

- Euskal gizarteak irakaskuntzaren arloan dituen premiei aurre egingo die, jakintzaren arlo guztietan ezagutza zabaldua kalitateko irakaskuntza ereduaren bidez.
- Nazioartean erakargarria izango den graduondoko eskaintza izango du.
- Ezagutza sortuko du lankidetzaren bidez (auzolan) eta Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sarean zein nazioartean izango duen aliantza politikari esker.
- Euskal gizartearen ongizatean eta ekonomiaren garapenean lagunduko du mugako ikerketan lortu-tako emaitzen transferentziaren bidez eta ezagutza zabalduz.
- Campusetako unibertsitate bizitzaren alde egingo du arlo guztietan, alegia, irakaskuntzan, gizarte arloetan, eko-hirigintzan eta arkitekturako arloetan, eta etengabe ahaleginduko da unibertsitateko kide guztiak pertsona legez hazi daitezen.
- Hausnarketarako eta pentsamendu kritikorako gune irekia izango da, horren bidez Euskal Herriaren ondore intelektual, humanistiko, kultural eta zientifikoari ekarpen erabakigarria eginez.
- Unibertsitateko kideek beren jarduna bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan betetzea ahalbidetuko du, egoera diglosikoa gaindituta.
- Lidergo intelektual eta erantzukizun sozialdun bokazioz, neurriak hartuko ditu gizon eta emakume-en arteko benetako berdintasuna lortzeko eta gizarte eta kulturazko desberdintasunak gutxitzeko, horiek bideratzen direlarik gizartearen progresoa sustatzera, ekitatea, jasangarritasuna eta giza eskubideen errespetua sustatuz.

1.3. Helburuak

Komunikazio Planak, UPV/EHUren misioa eta ikuspegiaren arabera, lau helburu nagusi ditu, eta helburu horiek daude proposatutako ekintza guztien oinarrian, espresuki adierazita zein adierazi gabe:

1. UPV/EHUko barne kohesioa hobetzea, eta unibertsitateko kideek elkarren artean informazioa eta komunikazioa truka dezaten sustatzea. Horretarako, komunikazio eredu propio bat definituko da.
2. UPV/EHUK eta euskal gizarteak ?helburu ditugun hartzailleek, batez ere? elkarrekin komunikatzeko eta informazioa partekatzeko dialogo eta bide egonkorrak ezartzea.
3. UPV/EHUko kide izatearen sentimendua sustatzea unibertsitatea osatzen duten eta unibertsitatean lan egiten duten, ikasten zuten edo ikasten duten pertsonen artean, eta baita euskal gizartearen ere. Planaren helburua da euskal gizarteak aski arrazoi izatea unibertsitateaz, UPV/EHUz, harro egoteko.
4. UPV/EHUK irudi batu eta erakargarri bat eman dezan sustatzea, bai barnera bai kanpora begira: gure unibertsitateko estamentu guztietako pertsona guztiok proiektu komun batean parte hartzen dugu.

1.4. Kontzeptuak

Komunikazio Plana hobeki ulertzeko, beharrezkoa da Planaren oinarrian dauden zenbait kontzeptu eta ardatz azaltzea:

- **Komunikazio Bulegoa:** Komunikazio Plana garatzeko eskemaren ardatz nagusia izan behar du. Komunikazio ekintza guztiak gidatuko edo/eta koordinatuko ditu, uneoro ikastegiekin lankidetzan. Ikastegiekin batera, beraz, babesa, laguntza eta aholkularitza emango du funtsean.
- **Oreka:** unibertsitateko estamentuen beharren artean etengabeko oreka lortzen ahaleginduko da Komunikazio Plana (ikastegietako, sailtako, institutueta, katedretako, prestakuntza eta ikerkuntza unitateetako, beste unitate batzuetako, irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen kolektibotako, eta ikasleen kolektiboko zuzendaritza taldeak). Hau da, bi joera uztartuko ditu: joera zentripettoa (irizpideak eta ekintzak bateratzea) eta joera zentrifugoa (estamentuen autonomia), betiere argi utzirik UPV/EHUko barne kohesioa sustatzea eta UPV/EHU marka kanpoan hedatzea direla helburu nagusiak.
- **Egitura:** beharrezkoa da Komunikazio Planak barne egitura egonkor bat izatea. Komunikazio arduradun bat behar da ikastegi eta sail bakoitzean. Komunikazio Bulegoak komunikazio ekintzak gidatuko ditu, ikastegietako komunikazio arduradunekin lankidetzan. Ikastegietako arduradunek eta Komunikazio Bulegoko arduradunak foro egonkor bat eratuko dute (komunikazioaren, lanaren edota ideien gainekoa, besteak beste): Komunikazio Batzordea. Aldi berean, ikastegiek berei atxikitako sail eta sail atalen laguntza eskatuko dute, eta komunikazio arlorako pertsona erreferente bat izendatuko da sail eta sail atal horietako bakoitzean.

Sailtako eta sail ataletako komunikazio erreferente horiek laguntza emango diete dagokien ikastegi-ko arduradunei, eta haiekin lankidetzan jardungo dute.

1.5. Oinarrizko printzipioak

Honako hauek dira Komunikazio Planaren funtsean dauden oinarrizko printzipioak:

- **Parte-hartzea:** unibertsitateko kide guztiak aintzatetsiko ditu. Kide guztiek dute erantzukizuna, oro har, Komunikazio Planaren garapenean, eta, zehatzago, Planaren ekintzetan. Bereziki garrantzitsua da ikastegiek eta ikastegietako komunikazio arduradunek Planean parte hartzea, eta baita ikasleek ere.
- **Lankidetzak:** UPV/EHUko barne kolektiboek (irakasle eta ikertzaileak, AZPko langileak, ikasleak) eta estamentuek (Errektoretza, ikastegiak, sailak, zerbitzuak) lankidetzarako duten prestutasunaren arabera da Komunikazio Planak ongi funtzionatzea edo ez.
- **Koordinazioa:** funtsezkoa da Planak jasotzen dituen ekintzak ?eragile eta estamentuek garatuak? modu koordinatu batean inplementatzea eta gauzatzea.

Azken batean, pluraltasunean, irekitasunean eta askatasunean oinarritutako unibertsitate publiko bat den heinean eta ikerkuntzaren eta berrikuntzaren alde egiten duen apustu irmoaren ildotik, UPV/EHUK nazioartera hedatu nahi du argi eta garbi, etorkizunaren berme gisa eta euskal gizartearen zerbitzura.

2. ESTRATEGIA, ESTILOA ETA MEZUAK

2.1. Estrategia

UPV/EHUK oinarritzat hartuko duen komunikazio estrategiari dagokionez, komunikazio instituzionala lantzeko estrategia bat da, harreman publikoetan eta unibertsitatearen jardueren hedapenean oinarritua. Hau da, ez dugu gure komunikazioa jardueren publizitatean oinarrituko (alegia, ez dugu hedabideetako espaziorik erosiko); aitzitik, jarduera horiek baliozkotu egingo ditugu gizartearen eta hedabideen aurrean. Komunikazio instituzionalaren strategiaren alde egin dugun apustuak ahalegin eta jarraitutasun handiagoa eskatzen du (baliabide ekonomiko gutxiago), baina ziur gaude euskal gizarte-arekiko eta helburu ditugun hartzaileekiko dialogo egonkorak lortuko ditugula estrategia horri esker, eta, epe luzera, eraginkorragoa izango dela haiekiko komunikazioan.

Estrategia horri jarraitzeak ez du, ordea, esan nahi publizitate ekintzarik gauzatuko ez dugunik momentu jakin batzuetan behar jakin batzuei aurre egiteko.

Zehatzago, kanpo komunikazioari dagokionez, honako estrategia hauek proposatzen ditugu:

- UPV/EHUREN webgunea inplementatzea, berriz diseinatzea eta garatzea. Internet bidezko komunikazioaren aldeko apustua.
- Euskal gizarteari helaraztea UPV/EHUREN lana eta ikerketa gaitasuna, gehienbat eguneroko prentsa idatziaren bitartez. Hedabideekiko harreman egonkorak finkatzea.
- Helburu ditugun hartzaileekiko harreman zuzen eta pertsonalizatuak finkatzea: ikastetxeetako orientatzaileak, etorkizunean gure ikasle izango direnak, familiak, unibertsitateko ikasle ohiak, enpresak eta lider sozialak. Harreman horiek informazio trukean oinarrituko dira, eta zenbait strategiaren bidez landuko ditugu: bilerak, posta elektronikoz dokumentazioa bidaltzea eta *Campus* aldizkaria.

Barne komunikazioari dagokionez, berriz, honako estrategia hauek proposatzen ditugu:

- UPV/EHUREN webgunea inplementatzea, berriz diseinatzea eta garatzea. Intranet bidezko komunikazioen aldeko apustua.
- Errektoretzaren eta UPV/EHUko beste estamentu batzuen arteko barne komunikaziorako eredu bat definitzea. Estrategia horretan, goranzko komunikazioa bultzatzea.

- Unibertsitateko kideen artean informazioa hedatzeko bide egonkorak irekitzea eta ezartzea; goranzko komunikazioa bultzatzeko mekanismoak, bereziki. Horretarako, zenbait bide erabiliko ditugu: Intranet bidez informazioa hedatzea eta jasotzea, Campusa aldizkaria, eta harreman informaletarako guneak indartzea, hala nola ekitaldiak antolatzea, ekitaldietarako gonbidapenak, eta abar.
- Helbide instituzionalak erabiltzeko ohitura bultzatzea ikasleen artean, beheranzko eta goranzko informazioaren fluxua hobetze aldera. Halaber, ikasleen parte-hartzea areagotzea, eta unibertsitateko kide direlako sentimendua hedatzea.

2.2. Komunikazio estiloa

Barne zein kanpo hartzaileekiko komunikazioaren estiloa oinarrizko hiru printzipiotan funtsatuko da: gardentasuna, begirunea eta gertutasuna. Estilo horrek gidatu behar gaitu eta gidatuko gaitu etorkizuneko komunikazio ekintza guztietan.

2.3. Mezuak

Helburu ditugun hartzaileei helarazi nahi dizkiegun mezuak, bai barnera begira (ikastegietako, sailetako, institutuetakoko, katedretako, prestakuntza eta ikerkuntza unitateetako, beste unitate batzuetako, irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen kolektiboetako, eta ikasleen kolektiboko zuzendaritza taldeak), bai kanpora begira (orientatzaileak, batxilergoko eta lanbide heziketako ikasleak, unibertsitateko ikasle ohiak, familiak, erakunde publikoak, enpresak, lider sozialak, hedabideak, eta gizartea, oro har), elkarrekin lotuta egongo dira beti, eta UPV/EHUren misioa laburbiltzen duen mezu nagusian oinarrituta egongo dira:

Mezu nagusia:

- “UPV/EHU erakunde **ikertzaile** bat da”.

Bigarren mailako mezuak:

- “Ikerkuntzaren bitartez, UPV/EHUK **ezagutza propio bat sortzen du**”.
- “UPV/EHUren bokazio ikertzaileari esker, **prestatzaile bikainak** gara, eta horrek **prestakuntza prozesua txit ona** izatea dakar”.
- “Ikerkuntzaren aldeko apustu bati esker lortuko du UPV/EHUK euskal gizarteari **jakintza transmititzea** eta orainaldiko eta etorkizuneko ongizatean ekarpen irmoa egitea”.

Honako arlo hauetan eragina duten mezu osagarriak:

1. Ikerkuntza:

- **Ikerkuntzaren** esparruan, erakunde sendoa da UPV/EHU, bikaintasunerako, hobekuntzarako eta hazkunderako bokazioa duena.

- UPV/EHU jakintza sortzen duen zentrorik garrantzitsuena da gure ingurunean, gehien ikertzen eta berritzen duen erakundea baita; sektore horretako beste eragile batzuekin lankidetzan, askotan: teknologia zentroak, ikerkuntza zentroak eta berrikuntza ardatz duten zentroak, eta baita beste unibertsitate, ikerketa talde, eta Espainiako eta Europako ikertzaile batzuk ere.
- Jakintza gizarteari transmititzeari esker (patenteen, zabalkunde zientifikoaren, lankidetzaren hitzarmenen edo/eta enpresa publiko eta pribatuak kontratuen bitartez), unibertsitateak berrikuntza sustatzen eta balioak sortzen ditu euskal gizartean, eta, modu horretan, ekarpen handia egiten du gizarte horren garapenean eta etorkizunean.

2. Prestakuntza:

- UPV/EHUn, 5.000 irakasle eta ikertzailek baino gehiagok lan egiten du, kualifikazio altua eta ikerketarako gaitasun handia dutenak guztiak ere. Bestalde, profesional bikainak ditugu administrazioan eta zerbitzuetan, eta instalazio eta azpiegitura moderno eta lehiakorak. Horri guztiari esker, kalitate oso altuko prestakuntza prozesu bat aurrera ateratzea lortzen dugu; gure ingurune hurbilarekin eta ingurune horretako lehiakortasunarekin alderatuz, askoz hobea. Areago, Espainiako eta are Europako unibertsitate onenetako bat daukagu.
- UPV/EHUko prestakuntza prozesuan, nazioarteko unibertsitate zenbaitek parte hartzen du nazioarteko mugikortasun programen bitartez; programa horietan, 3.000 euskal enpresak baino gehiagok parte hartzen dute (enpresarik handienak eta garrantzitsuenak barne), prestakuntza praktiken, karrera amaierako proiektuen, gradu amaierako proiektuen eta master amaierako proiektuen bidez. Horri guztiari esker, kualifikazio oso altuko profesionalak prestatzea lortzen du UPV/EHUK, jakintza eremu guztietan (ekonomia, zuzenbidea, zientzia esperimentalak, giza zientziak, osasuna, gizarte zientziak, irakaskuntza teknikoak), euskaraz zein gaztelaniaz.
- UPV/EHUK prestatuak dira euskal gizarteko lider instituzional, politiko, ekonomiko eta kultural gehienak.
- UPV/EHUK konpromisoa du euskal gizartearen kultura zientifikoa, humanistikoa eta teknologikoa sustatzeko, hezkuntzaren, prestakuntzaren eta zabalkundearen bitartez.

2.4. Mezuak eta helburu ditugun hartzaileak

UPV/EHUko estamentuak (ikastegietako, sailtako, institutuak, katedretako, prestakuntza eta ikerkuntza unitateak, beste unitate batzuetako, irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen kolektiboenak, eta ikasleen kolektiboko zuzendaritza taldeak):

- UPV/EHU erakunde ikertzaile bat da.
- Ikerkuntzaren bitartez, UPV/EHUK ezagutza propio bat sortzen du.
- UPV/EHUn bokazio ikertzaileari esker, prestatzaile bikainak gara, eta horrek prestakuntza prozesua txit ona izatea dakar.
- Ikerkuntzaren aldeko apustu bati esker lortuko du UPV/EHUK euskal gizarteari jakintza transmititzea eta orainaldiko eta etorkizuneko ongizatean ekarpen irmoa egitea.
- UPV/EHUK etengabeko hobekuntzaren, eta ikerkuntzaren eta prestakuntzaren bikaintasunaren bidetik jotzea erabaki du.

- UPV/EHUren helburu estrategikoen artean dago barne eta kanpo komunikazioarekin lotutako gai guztiak lantzea.
- UPV/EHUK etorkizunean garatzeko elementu ezinbestekotzat jotzen ditu ikastegi guztiak.
- UPV/EHUK neurri berean aintzatesten ditu ikastegi guztiak.
- UPV/EHUren eta beste erakunde laguntzaile batzuen Euskampus proiektuak Nazioarteko Bikaintasun Campusa izendapena lortu du.

Irakasle eta ikertzaileak eta AZPko langileak:

- UPV/EHU erakunde ikertzaile bat da.
- Ikerkuntzaren bitartez, UPV/EHUK ezagutza propio bat sortzen du.
- UPV/EHUren bokazio ikertzaileari esker, prestatzaile bikainak gara, eta horrek prestakuntza prozesua txit ona izatea dakar.
- Ikerkuntzaren aldeko apustu bati esker lortuko du UPV/EHUK euskal gizarteari jakintza transmititzea eta orainaldiko eta etorkizuneko ongizatean ekarpen irmoa egitea.
- UPV/EHUK etengabeko hobekuntzaren, eta ikerkuntzaren eta prestakuntzaren bikaintasunaren bidetik jotzea erabaki du.
- UPV/EHUK bere langileak zaintzen ditu.
- UPV/EHUn, langile guztiek izan behar dute karrera profesional bat garatzeko aukera.
- UPV/EHU enpresa publiko bat da, eta langile guztiek pozik egon behar dute.
- UPV/EHUren eta beste erakunde laguntzaile batzuen Euskampus proiektuak Nazioarteko Bikaintasun Campusa izendapena lortu du.

UPV/EHUko ikasleak:

- UPV/EHUK bere ikasleak zaintzen ditu.
- UPV/EHUK konpromisoa hartu du ikasleekiko informazio fluxuak –goranzkoak zein beheranzkoak– egokiak izateko baliabideak jartzeko.
- UPV/EHUn matrikulatuta egoteak unibertsitateko kide izatea eta prestakuntza eta hezkuntza prozesuaren ardatz izatea dakar.
- UPV/EHUn prestakuntza jasotzeak eta ikasteak ikerkuntzan eta berrikuntzan puntakoa den unibertsitate bateko kide izatea dakar, eta baita bere ikasleek kezkatzen den kalitate altuko irakasle talde baten lankidetzeta eta laguntza jasotzea ere.
- UPV/EHUn prestakuntza jasotzen eta ikasten duten ikasleek aukera dute enpresetako praktikak egiteko sare handi eta kualifikatuenean parte hartzeko, eta baita Euskal Herriko unibertsitate laborategi, instalazio eta ekipamendu onenak erabiltzeko ere.
- UPV/EHUn prestakuntza jasotzen eta ikasten duten ikasleek atek zabalik dituzte lan merkatuan sartzeko, eta kualifikazio altua eta onetsia lortzen dute.
- UPV/EHUren eta beste erakunde laguntzaile batzuen Euskampus proiektuak Nazioarteko Bikaintasun Campusa izendapena lortu du.
- UPV/EHU funtsezko elementu bat da euskal gizartearen errealitate kulturala ulertzeko, arte, literatura, kirol, politika edota humanistika ekimenak sustatzen eta bultzatzen dituen heinean.

Ikastetxeetako orientatzaileak:

- UPV/EHU Euskal Herriko ikerketa zentrorik handiena da, eta Espainiako handienetako bat.
- UPV/EHUK 5.000 irakasle eta ikertzaile baino gehiago ditu, kualifikazio oso altukoak guztiak ere, prestakuntzarik eta kualifikaziorik onena emate aldera.

- UPV/EHUK prestatuak dira Euskal Herriko lider sozial, instituzional, ekonomiko, politiko eta kulturak.
- UPV/EHUK prestatuak dira euskal enpresetako zuzendaritza talde eta profesional gehienak.
- UPV/EHUK laborategi, instalazio eta ekipamendu teknologiko onenak ditu gure ingurunean ikerkuntza eta prestakuntza bideratzeko.
- UPV/EHUK gradu eta gradu ondoko prestakuntza eskaintza askotarikoa ematen du; gure ingurune-ko eskaintza zabalena, hain zuzen.
- UPV/EHUK gradu eta gradu ondoko euskarazko prestakuntza eskaintza zabalena ematen du.
- UPV/EHU unibertsitate publikoa, gertukoa eta nortasunez betea da.
- UPV/EHUren eta beste erakunde laguntzaile batzuen Euskampus proiektuak Nazioarteko Bikaintasun Campusa izendapena lortu du.
- UPV/EHUK apustu irmoa egin du eleaniztasunaren alde. Hala, prestakuntza eskaintza zabala ematen du euskaraz eta gaztelaniaz, eta baita, gero eta gehiago, ingelesez eta beste hizkuntza batzuetan ere.
- UPV/EHU funtsezko elementu bat da euskal gizartearen errealitate kulturala ulertzeko, arte, literatura, kirol, politika edota humanistika ekimenak sustatzen eta bultzatzen dituen heinean.
- UPV/EHUK apustu irmoa egin du ikastetxeetako orientatzaileen kolektiboaren informazio eskaerak eta beharrak asetzeko.

Batxilergoko eta lanbide heziketako ikasleak:

- UPV/EHU Euskal Herriko ikerketa zentrorik handiena da, eta Espainiako handienetako bat.
- UPV/EHUK 5.000 irakasle eta ikertzaile baino gehiago ditu, kualifikazio oso altukoak guztiak ere, prestakuntzarik eta kualifikaziorik onena emate aldera.
- UPV/EHUK prestatuak dira Euskal Herriko lider sozial, instituzional, ekonomiko, politiko eta kulturak.
- UPV/EHUK prestatuak dira euskal enpresetako zuzendaritza talde eta profesional gehienak.
- UPV/EHUK laborategi, instalazio eta ekipamendu teknologiko onenak ditu gure ingurunean ikerkuntza eta prestakuntza bideratzeko.
- UPV/EHUK gradu eta gradu ondoko prestakuntza eskaintza askotarikoa ematen du; gure ingurune-ko eskaintza zabalena, hain zuzen.
- UPV/EHUK gradu eta gradu ondoko euskarazko prestakuntza eskaintza zabalena ematen du.
- UPV/EHU unibertsitate publikoa, gertukoa eta nortasunez betea da.
- UPV/EHUren eta beste erakunde laguntzaile batzuen Euskampus proiektuak Nazioarteko Bikaintasun Campusa izendapena lortu du.
- UPV/EHUK apustu irmoa egin du eleaniztasunaren alde. Hala, prestakuntza eskaintza zabala ematen du euskaraz eta gaztelaniaz, eta baita, gero eta gehiago, ingelesez eta beste hizkuntza batzuetan ere.
- UPV/EHU funtsezko elementu bat da euskal gizartearen errealitate kulturala ulertzeko, arte, literatura, kirol, politika edota humanistika ekimenak sustatzen eta bultzatzen dituen heinean.

UPV/EHUko ikasle ohiak:

- UPV/EHUko ikasle ohi izateak ikerkuntzan eta berrikuntzan puntakoa den unibertsitate bateko partaide izatea dakar.
- UPV/EHUko ikasle ohi izateak kualifikazio altuko profesional izatea esan nahi du.
- UPV/EHUko ikasle ohi izateak etorkizuna sortzeko proiektu bakar eta beraren partaide izatea dakar, esparru instituzional, ekonomiko, politiko, sozial eta kulturaletako euskal lider gehien moduan.

- UPV/EHUko ikasle ohi zaren aldetik, UPV/EHUK beti hartuko zaitu erakundeko kideztat, eta atea irekiko dizkizu hala behar duzun guztietan.
- UPV/EHUko ikasle ohi zaren aldetik, UPV/EHUK beti izango zaitu kontuan, eta unibertsitateko jardueren berri emango dizu, batez ere zure interes betekoak direnez bezainbatean.
- UPV/EHUREn eta beste erakunde laguntzaile batzuen Euskampus proiektuak Nazioarteko Bikaintasun Campusa izendapena lortu du.
- UPV/EHUK apustu irmoa egin du eleaniztasunaren alde. Hala, prestakuntza eskaintza zabala ematen du euskaraz eta gaztelaniaz, eta baita, gero eta gehiago, ingelesez eta beste hizkuntza batzuetan ere.
- UPV/EHU funtsezko elementu bat da euskal gizartearen errealitate kulturala ulertzeko, arte, literatura, kirol, politika edota humanistika ekimenak sustatzen eta bultzatzen dituen heinean.
- UPV/EHUK prestatuak dira Euskal Herriko lider sozial, instituzional, ekonomiko, politiko eta kulturak.

Hedabideak:

- UPV/EHUK interes betea du hedabideetako profesionalekin komunikatzeko eta hitz egiteko bide iraunkorrak finkatzeko.
- UPV/EHUK, Komunikazio Bulegoaren bitartez, hedabideekin lankidetzan aritzeko asmo irmoa du, beren lana errazteko eta unibertsitateak kanpoan ematen duen irudia egokia izan dadin.
- UPV/EHUK laguntza eman nahi die hedabideei, eta harekin lankidetzan aritu, elkarrekiko konfiantzazko giro batean.
- UPV/EHUREn eta beste erakunde laguntzaile batzuen Euskampus proiektuak Nazioarteko Bikaintasun Campusa izendapena lortu du.
- UPV/EHUK apustu irmoa egin du eleaniztasunaren alde. Hala, prestakuntza eskaintza zabala ematen du euskaraz eta gaztelaniaz, eta baita, gero eta gehiago, ingelesez eta beste hizkuntza batzuetan ere.
- UPV/EHU funtsezko elementu bat da euskal gizartearen errealitate kulturala ulertzeko, arte, literatura, kirol, politika edota humanistika ekimenak sustatzen eta bultzatzen dituen heinean.

Enpresak:

- UPV/EHUK interes betea du euskal enpresa sarearekin komunikatzeko eta hitz egiteko bide iraunkorrak finkatzeko.
- UPV/EHU puntako erakunde bat da ikerkuntzari eta berrikuntzari, eta jakintza sortzeari dagokionez, eta gai da ikerkuntzako edozein lani heltzeko, bakarka zein beste batzuekiko lankidetzan.
- Gaur egun, UPV/EHU lankidetzan aritzen da euskal enpresa handienekin eta onenekin (hitzarmenak, kontratuak, praktikak...).
- Ikasleen praktika aldiei dagokienez, UPV/EHUK oso modu positiboan balioesten du euskal enpresa sarearen laguntza, ikasleek kualifikazio altua lortzeko ezinbesteko elementutzat jotzeraino.
- UPV/EHUK laguntza eman nahi dio euskal enpresa sareari, eta haiekin lankidetzan aritu, elkarrekin konfiantzazko giro batean.
- UPV/EHUREn eta beste erakunde laguntzaile batzuen Euskampus proiektuak Nazioarteko Bikaintasun Campusa izendapena lortu du.
- UPV/EHUK apustu irmoa egin du eleaniztasunaren alde. Hala, prestakuntza eskaintza zabala ematen du euskaraz eta gaztelaniaz, eta baita, gero eta gehiago, ingelesez eta beste hizkuntza batzuetan ere.

Familiak:

- UPV/EHU Euskal Herriko ikerkuntza zentro handiena da, eta Espainiako handienetako bat.
- UPV/EHUK prestatuak dira euskal enpresa eta erakundeetako zuzendaritza talde eta profesional gehienak.
- UPV/EHUK laborategi, instalazio eta ekipamendu teknologiko onenak ditu gure ingurunean ikerkuntza eta prestakuntza bideratzeko.
- UPV/EHUK gradu eta gradu ondoko prestakuntza eskaintza askotarikoa ematen du; gure ingurune-ko eskaintza zabalena, hain zuzen.
- UPV/EHU unibertsitate publikoa, gertukoa eta nortasunez betea da.
- UPV/EHUREN eta beste erakunde laguntzaile batzuen Euskampus proiektuak Nazioarteko Bikaintasun Campusa izendapena lortu du.
- UPV/EHUK apustu irmoa egin du eleaniztasunaren alde. Hala, prestakuntza eskaintza zabala ematen du euskaraz eta gaztelaniaz, eta baita, gero eta gehiago, ingelesez eta beste hizkuntza batzuetan ere.
- UPV/EHU funtsezko elementu bat da euskal gizartearen errealitate kulturala ulertzeko, arte, literatura, kirol, politika edota humanistika ekimenak sustatzen eta bultzatzen dituen heinean.

Euskal gizartea:

- UPV/EHU unibertsitate publikoa, gertukoa eta nortasunez betea da.
- Unibertsitate publikoa den aldetik, UPV/EHUK urtero ematen du bere kudeaketaren berri, publikoki, modu guztiz garden batean.
- UPV/EHU Euskal Herriko ikerkuntza zentro handiena da, eta Espainiako handienetako bat.
- UPV/EHUK prestatuak dira euskal enpresa eta erakundeetako zuzendaritza talde eta profesional gehienak.
- UPV/EHUK laborategi, instalazio eta ekipamendu teknologiko onenak ditu gure ingurunean ikerkuntza eta prestakuntza bideratzeko.
- UPV/EHUK gradu eta gradu ondoko prestakuntza eskaintza askotarikoa ematen du; gure ingurune-ko eskaintza zabalena, hain zuzen.
- UPV/EHUREN eta beste erakunde laguntzaile batzuen Euskampus proiektuak Nazioarteko Bikaintasun Campusa izendapena lortu du.
- UPV/EHUK apustu irmoa egin du eleaniztasunaren alde. Hala, prestakuntza eskaintza zabala ematen du euskaraz eta gaztelaniaz, eta baita, gero eta gehiago, ingelesez eta beste hizkuntza batzuetan ere.
- UPV/EHU funtsezko elementu bat da euskal gizartearen errealitate kulturala ulertzeko, arte, literatura, kirol, politika edota humanistika ekimenak sustatzen eta bultzatzen dituen heinean.

Lider sozialak:

- UPV/EHUREN baitan, aldaketa sakonak gertatzen ari dira, eta geure burua prestatzen ari gara etorkizunaren aurrean, etengabeko berrikuntzaren bitartez eta, betiere, bikaintasuna lortu nahian.
- UPV/EHUREN betekizuna da ikerkuntza eta berrikuntza sustatzea, eta euskal gizarteari jakintza transmititzen dion eta balio gehien sortzen eta ematen dizkion erakundea da.
- UPV/EHUK prestatuak dira Euskal Herriko lider sozial, instituzional, ekonomiko, politiko eta kultural gehienak.
- UPV/EHUK lider sena du Euskal Herriko garapen ekonomiko eta sozialari dagokionez, eta giltzarri da etorkizuneko jakintza gizartean.



- UPV/EHU funtsezko elementu bat da euskal gizartearen errealitate kulturala ulertzeko, arte, literatura, kirol, politika edota humanistika ekimenak sustatzen eta bultzatzen dituen heinean.

3. PLANAREN METODOLOGIA

Komunikazio Plana egiteko, partaidetzazko estrategia bat planteatu genuen, errealitatearen diagnostiko zehatz batean oinarritua.

Lehen fasean (2010eko urtarrila-maiatza), lehendik ere bazegoen dokumentazioa bildu eta aztertu ondoren, helburu ditugun hartzaileengana jo genuen, haien iritziak ezagutzeko eta haien laguntza jasotzeko asmoz.

Fase horretan, 10.411 pertsonak parte hartu zuten:

- UPV/EHUko ikastegietako 31 dekanok eta zuzendariak (elkarrizketa bidez).
- 21 irakasle eta ikertzaile eta AZPko 24 langile (bilera bidez).
- 2.003 irakasle eta ikertzaile eta AZPko 733 langile (inkestak bidez).
- UPV/EHUko 3.070 ikasle (inkestak bidez).
- Batxilergoko eta lanbide heziketako ikastetxeetako 116 orientatzaile (inkestak bidez).
- Batxilergoko eta lanbide heziketako ikastetxeetako 21 orientatzaile (elkarrizketa bidez).
- Batxilergoko eta lanbide heziketako 2.212 ikasle (inkestak bidez).
- UPV/EHUko 402 ikasle ohi (inkestak bidez).
- Unibertsitateko 24 ikasle ohi (bilera bidez).
- Seme-alabaren bat unibertsitatean ikasteko adinean duten 24 guraso (bilera bidez).
- 511 euskal enpresa (inkestak bidez).
- 1.200 euskal herritar (inkestak bidez).
- Erakunde, politika, enpresa eta kultura esparruetako 16 lider sozial (elkarrizketa bidez).

Bigarren fasean (2010eko ekaina-iraila), 11 txosten partzial diagnostikatzailerik prestatu genituen, lan dokumentu gisa.

Ondoren (2010eko urria-abendua), Komunikazio Plana lantzeari eta idazteari ekin genion, aurretiko dokumentaziotik abiatuz.

Azken fase horretan, UPV/EHUko ikastegietako 31 dekanok eta zuzendarien laguntza eta partaidetza jaso genuen, berriz ere.

Bestalde, bi kontraste taldek aktiboki lan egin dute prozesu osoan zehar: prozesu osoan zehar sortuz joan den dokumentazio guztia aztertu dute, eta lan bilerak egin dituzte hilerok, Komunikazio Planaren prestaketaren segimendua egiteko asmoz. Talde horietako batean, UPV/EHUko zuzendaritza taldeko kide batzuek parte hartu dute (6 pertsona), eta bestean, berriz, UPV/EHUrekin lotuta dauden zenbait pertsonak, irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen kolektiboetako zenbaitek eta zenbait ikaslek (8 pertsona).

4. EKINTZA PROPOSAMENAK

Atal honetan, labur-labur aipatuko ditugu proposatutako 40 ekintzak, helburu ditugun hartzaileen araberako multzokaturik. Hartzaile talde batentzat baino gehiagorentzat izanik ekintza horietako bi, bi aldiz agertzen badira ere, kodea azpimarratuz nabarmendu ditugu, eta dagokien ekintza identifikatu dugu, gaizki ulertzerik eta bikoiztasunik egon ez dadin.

4.1. Barne eta kanpo hartzaileak: denak

- 4.1.1. EBarne egitura egonkor bat finkatzea (4.3.1. ekintza), ikastegietan oinarritua, Komunikazio Bulegoak Komunikazio Plana zabaltzeko babesa izan dezan. Egitura horretan, ikastegi bakoitzak barne eta kanpo komunikaziorako arduradun bat izango du; pertsona horrek Komunikazio Bulegoarekiko lotura lana egingo du. Aldi berean, sailek barne eta kanpo komunikaziorako arduradun bat izendatuko dute, ikastegietako komunikazio arduradunarekin harremanetan izan daitezten.
- 4.1.2. UPV/EHUren webgunea berritzea, bai aplikazio informatikoaren ikuspegitik, bai diseinu funtzionalaren ikuspegitik. Plataforma berritu horretan, barne eta kanpo komunikaziorako tresnak garatuko dira, hala nola Intranet zerbitzua (zerbitzu hori beharrezkoa duten ikastegietan), blogak, bideoak, foroak, lan sareak, eta abar.
- 4.1.3. UPV/EHUren eta ikastegien webguneak elikatzea, UPV/EHUko eta ikastegietako informazio garrantzitsu guztia txertatuz. Edukiak eguneratzea eta jarraipena egitea.
- 4.1.4. Komunikazio Bulegoari barne eta kanpo komunikazioa hobetzeko prozesuak gidatzeko behar dituen baliabide materialak eta giza baliabideak ematea. Komunikazio Bulegoak honako funtzio hauek izango ditu: eragileek egindako ahaleginak elkarrekin koordinatzea (ikastegiak, errektoreordetzak, gerenteordetzak, zerbitzuak, IAZ, eta abar), eragileei aholkularitza ematea, ekimenak babestea, komunikazio ekintzetan parte hartzea, informazio fluxuak antolatzea, informazioa sailkatzea, eta UPV/EHU hedatzeko materialak sortzen laguntzea.
- 4.1.5. *Campus*a aldizkaria birmoldatzea eta birdefinitzea. Komunikazio Bulegoaren eskutik joango da aldizkaria birmoldatzea: helburuak definitu, diseinua eta maketazioa aldatu, edukiak hobetu, hedatze plana, helburu diren hartzaileak finkatu, eta abar.
- 4.1.6. Sare sozialetan parte har dadin bultzatzea. UPV/EHUK 2.0 kultura berrian barneratu eta kultura horretan parte hartu nahi du, eta, horretarako, aktiboki egongo da sare sozial nagusietan; unibertsitate izaera nabarmena duten sareetan, batez ere.

- 4.1.7. Webgunearen irudiaren eta erabilgarritasunaren arduradun bat izendatzea.
- 4.1.8. UPV/EHUren erakunde irudiaren eskuliburua eguneratzea, hedatzea eta haren erabilera sustatzea.
- 4.1.9. UPV/EHUren marka estrategia bat finkatzea, marka hori nazioartean hedatzeko eta proiektatzeko. Ingelesa eta beste hizkuntza batzuk ere sartzea.
- 4.1.10. Uniberts saltokiak irekitzea Leioan, Donostian eta Gasteizen.

4.2. Barne hartzaileak

- 4.2.1. Barne komunikaziorako estrategia eta estilo bat definitzea, UPV/EHUko errektoretzaren eta ikastegi, sail eta langileen arteko dialogoa bideratzeko. Arreta berezia emango zaie goranzko komunikazioarekin lotutako gaiari (4.11.2. ekintzari loturik).
- 4.2.2. UPV/EHUko aplikazio informatikoak epe ertainean batu daitezzen sustatzea (webguneak, Ikertu, sailen memoriak, curriculumak, plasmako telebistak, beste aplikazio batzuk...), informazioa elkarrekin partekatu ahal izateko. Beharrezkoa da dokumentazioa eramangarria eta bateragarria izatea.
- 4.2.3. Datu estatistikoak kudeatzeko zerbitzuari bultzada bat ematea, informazio estatistikoa zentraliza eta batera dezan.

4.3. UPV/EHUko ikastegiak

- 4.3.1. Barne egitura egonkor bat finkatzea (4.1.1. ekintza), ikastegietan oinarritua, Komunikazio Bulegoak Komunikazio Plana zabaltzeko babesa izan dezan. Egitura horretan, ikastegi bakoitzak barne eta kanpo komunikaziorako arduradun bat izango du; pertsona horrek Komunikazio Bulegoarekiko lotura lana egingo du. Aldi berean, sailek barne eta kanpo komunikaziorako arduradun bat izendatuko dute, ikastegietako komunikazio arduradunarekin harremanetan izan daitezzen.
- 4.3.2. Ikastegien webguneen oinarrizko dokumentu bat diseinatzea. Dokumentu horretan, UPV/EHUko ikastegi guztiek bete beharreko jarraibide orokor eta komunak finkatuko dira (kategoria, antolakuntza, dokumentazioa, eta abar), ikastegiek beren webgunea kudea eta antola dezaten. Ikastegiek pertsonalizatzeko eta besteengandik desberdintzeko aukera izango dute, betiere.

4.4. Irakasle eta ikertzaileak eta AZPko langileak

- 4.4.1. UPV/EHU osoko mapa bat egitea, zerbitzuak, ikastegi eta sailak, pertsonak, helbide elektronikoa, telefona, eta abar, adierazita.
- 4.4.2. UPV/EHUko langileen posta edo/eta izen zerrendak eratzea: ikastegika, sailka, zerbitzuka...

- 4.4.3. UPV/EHUko ikastegi eta sailtako komunikazio arduradunen posta edo/eta izen zerrendak eratztea.
- 4.4.4. Irakasle eta ikertzaileen eta AZP langileen harrerarako oinarrizko dokumentu bat egitea, langile bat UPV/EHUUn sartzeko prozesuan zerbitzu eta sailek bete behar dituzten jarraibide orokor eta komunak finkatzeko.

4.5. UPV/EHUko ikasleak

- 4.5.1. UPV/EHUko ikasleek unibertsitateko posta erabil dezaten sustatzea. Ikaslearen esku egongo da bere postarekin zein lotura duen.
- 4.5.2. "Ikasleen Erreferentea" figura sortzea, ikasmaila bakoitzeko tutore gisa jardungo duena, ikasle-en goranzko komunikazioa dinamizatzeko eta baita ikasleek gai jakin batzuen gaineko orientabidea jasotzeko ere.
- 4.5.3. UPV/EHUko ikasleen artean beren eskubide eta betebeharrak zein diren zabaltzea.

4.6. Ikastetxeetako orientzaileak

- 4.6.1. Batxilergoko eta lanbide heziketako orientatzaileen posta edo/eta izen zerrendak mantentzea eta eguneratzea, urtero edo ikastegietan barne aldaketaren bat gertatzen den aldiro.
- 4.6.2. Urtero jardunaldi bat antolatzea batxilergoko eta lanbide heziketako orientatzaileekin. Prozesua ebaluatzeko bidea emango duen jardunaldi tekniko bat izango da.
- 4.6.3. Batxilergoko eta lanbide heziketako orientatzaileentzako material espezifikoko gehiago sortzea eta material hori hobetzea, eta posta elektronikoko bidez bidaltzea.

4.7. Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak

- 4.7.1. Batxilergoko eta lanbide heziketako ikasleak informatzeko material espezifikoko gehiago sortzea eta material hori hobetzea, ikasleek interes betekotzat jotzen dituzten gaien inguruan:
 - Boloniako gradu berriak
 - Lan aukerak
 - Ikasketa laguntzak eta diru laguntzak
 - Unibertsitate alojamendua
 - Garraioa
 - Eta abar

4.8. UPV/EHUko ikasle ohiak

- 4.8.1. Ikasle ohien posta zerrendak edo/eta datu baseak eratztea, helbide elektronikoko bat adierazita.

- 4.8.2. Ikasle ohien elkarteak sortzea halakorik ez duten ikastegietan.
- 4.8.3. Urtero, posta elektronikoz bidez UPV/EHUko prestakuntza eskaintzari buruzko informazioa bidaltzea, batez ere gradu ondokoei eta masterrei buruzkoa.
- 4.8.4. Ikasle ohiek unibertsitateko jardueretan parte har dezaten sustatzea: ekitaldiak, jardunaldiak...

4.9. Hedabideak

- 4.9.1. Kontraste lan talde bat eratzea hedabideetako ordezkari eta profesionalekin. Sei hilabetetik behin topaketa bat antolatzea haiekin, eguneroko ekitaldien, mintegi baten edota jardunaldi tekniko baten aitzakian.
- 4.9.2. Adituak adituen zerbitzua sustatzea, pertsona boluntario gehiago biltzeko.
- 4.9.3. Adituak zerbitzua zabaltzea hedabideen artean.

4.10. Enpresak

- 4.10.1. UPV/EHUrekin lankidetzan jarduten duten eta ez duten enpresen posta edo/eta izen zerrendak eratzea, prestakuntza praktiken, lankidetzaren kontratu edo hitzarmenen, eta oinarritzko ikerkuntzaren eta ikerkuntza aplikatuaren bitartez. Urtero eguneratuko dira zerrenda horiek.
- 4.10.2. Urtero, jardunaldi bat antolatzea eta UPV/EHUrekin lankidetzan jarduten duten enpresak gonbidatzea. Enpresek omenaldi bat jasoko dute jardunaldi horretan, eta urte bakoitzean nabarmendu diren enpresak sarituko dira.
- 4.10.3. *Campus* aldizkaria enpresetara bidaltzea.

4.11. Gizartea

- 4.11.1. Gizartetik gertuko espazioetan ekitaldi gehiago antolatzea eta UPV/EHUko jarduerak kalera ateratzea.
- 4.11.2. Hedabideetan dugun presentzia areagotzea, gizarteari gure eguneroko zereginen berri emateko (4.2.1. *ekintzari* loturik).
- 4.11.3. Lider sozial, instituzional, ekonomiko eta kulturalak UPV/EHUrekin lotzea.

4.12. Beste kolektibo batzuk

- 4.12.1. Komunikazio Planaren eranskin bat prestatzea helburu ditugun nazioarteko hartzaileentzat: nazioarteko ikasle potentzialak, nazioarteko ikerketa taldeak, atzerriko unibertsitateak, Europako partnerrak, Europako erakundeak, eta abar.

4.12.2. Nazioarteko ekitaldiak hona ekar daitezzen sustatzea: biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak, eta abar.

5. PROPOSAMENEN DESKRIBAPENA

Atal honetan, banan-banan azalduko ditugu proposatutako ekintzak. Honako datu hauek emango ditugu ekintza bakoitzari buruz: deskribapena, helburua edo helburuak, prozesua ebaluatzeko adierazleak (plana betetzea) eta emaitza adierazleak (ekintzen eraginkortasuna), arduraduna, aurrekontua (ekintzak hala eskatuz gero) eta lehentasun maila.

Hartzaile batentzat baino gehiagorentzat proposatutako ekintzak (aurreko atalean nabarmendu ditugu) ez ditugu bi aldiz azalduko; behin bakarrik agertuko dira, lehen agerraldian.

Helburu dugun hartzailea	4.1. BARNE ETA KANPO HARTZAILEAK
Ekintza	4.1.1. Barne egitura egonkor bat finkatzea (4.3.1. ekintza), ikastegietan oinarritua, Komunikazio Bulegoak Komunikazio Plana zabaltzeko babesari izan dezan. Egitura horretan, ikastegi bakoitzak barne eta kanpo komunikaziorako arduradun bat izango du; pertsona horrek Komunikazio Bulegoarekiko lotura lana egingo du. Aldi berean, sailek barne eta kanpo komunikaziorako arduradun bat izendatuko dute, ikastegietako komunikaziorako arduradunarekin harremanetan izan daitezela.
Deskribapena	Ikastegi bakoitzak komunikaziorako arduradun bat izango du, eta arduradun horrek ikastegiaren ordezkari gisa jardungo du Komunikazio Batzordean. Komunikazio Bulegoarekin arituko da uneoro lanean, UPV/EHUko barne eta kanpo komunikaziorako lotutako gaietan.
	AZPko langile bat izango da ikastegiko komunikaziorako arduraduna. Pertsona hori komunikazio gaietan aditua izango da, eta ikastegietako gerentziara atxikita egon beharko du. Ikastegietako zuzendaritzekin lan egingo du; bereziki, dagoen ikastegian komunikaziorako arduraduna den dekanorde edo zuzendariordearekin.
	Ikastegi bakoitzeko komunikaziorako arduradunak komunikazio gaiak dinamizatuko ditu bere ikastegian, sailekin eta sailetako komunikaziorako arduradunarekin harremanetan jarriko da, eta behearazko informazioa (Komunikazio Bulegoetatik ikastegietara, sailetara, irakasle eta ikertzaileengana, AZPko langileengana eta ikasleengana) eta goranzko informazioa (haietatik Komunikazio Bulegora) behar bezala betetzeko arduradun nagusia izango da.
Helburua	UPV/EHUko barne parte-hartzea eta kohesioa sustatzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Ikastegi eta sailetan komunikaziorako arduradunak izatea.
Prozesuaren ebaluazioa	Arduradunek barne eta kanpo komunikaziorako buruzko proiektuetan parte hartzea. Lau urtetik behin.
Arduraduna	Errektoretza taldea, gerentzia, Komunikazio Bulegoa.
Lehentasun maila	Altua

Helburu dugun hartzailea	4.1. BARNE ETA KANPO HARTZAILEAK
Ekintza	4.1.2. UPV/EHUREN webgunea berritzea, bai aplikazio informatikoaren ikuspegitik, bai diseinu funtzionalaren ikuspegitik. Plataforma berritu horretan, barne eta kanpo komunikaziorako tresnak garatuko dira, hala nola Intranet zerbitzua (zerbitzu hori beharrezkoa duten ikastegietan), blogak, bideoak, foroak, lan sareak, eta abar.
Deskribapena	Aplikazio informatiko berri bat eratzea edo kontratatzea, UPV/EHUREN eta ikastegien beharren euskarri eta bermagarri izan dadin: Intranet zerbitzua baliatzeko aukera emango die ikastegiei, eta baita blog, foro, txat edota kanpo gakoekiko sare sozialak eratzeko ere.
	Bereziki garrantzitsua da aplikazio berriak ikus-entzunezko informazioa eta edukiak erabiltzeko aukera ematea.
	Aplikazioaren diseinua erakargarria, dinamikoa eta intuitiboa izango da.
Helburua	UPV/EHUKO barne komunikazioa hobetzea.
	UPV/EHUKO kanpo komunikazioa hobetzea.
	UPV/EHUK kanpoan duen irudia sustatzea eta hobetzea.
	Unibertsitateko kide izatearen sentimendua sustatzea.
	UPV/EHUKO barne kohesioa hobetzea.
	UPV/EHU gizartean hedatzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Aplikazio berria lortzea.
Emaitzen ebaluazioa	Intranet bidezko inkestak (irakasle eta ikertzaileak, AZPko langileak, ikasle ohiak), telefono bidezkoak (ikasleak, Lanbide) eta norberak betetzekoak (orientatzaileak, enpresak, eta abar) egingo dira. Bi urtetik behin.
Arduraduna	Komunikazio Bulegoa, IKTen Gerenteordetza, ikastegietako komunikazio arduradunak.
Lehentasun maila	Altua

Helburu dugun hartzailea	4.1. BARNE ETA KANPO HARTZAILEAK
Ekintza	4.1.3. UPV/EHUn webgunea elikatzea, informazio guztia txertatuz. Edukiak eguneratzea eta jarraipena egitea.
Deskribapena	UPV/EHUn webguneetan agertzen den informazioa garrantzitsua eta etengabe eguneratua izan dadin, baliabide egokiak finkatzea UPV/EHUn, ikastegietan eta gainerako egituretan.
	Intranet bat sortzea.
	Blogak, foroak edota sare sozialak erabil daitezzen sustatzea, langileen eta ikasle-en parte-hartzea dinamizatze aldera.
Helburua	UPV/EHUko on line komunikazio baliabideak UPV/EHUko barne eta kanpo komunikazioaren ardatz bihurtzea.
Prozesuaren ebaluazioa	Webguneko informazio kantitatea.
